

GARAPEN BIDEAN DAUDEN ITSASOKO ENERGIA TEKNOLOGIA BERRIZTAGARRIAK ERAKUSTEKO ETA BALIOZTATZEKO INBERTSIOEN ALDEKO LAGUNTZEN PROGRAMA 2022

IV. ERANSKINA. ENPRESATZAT HARTZEKO DEKLARAZIOA
651/2014 ERREGELAMENDUAREN ARABERA

Eskatutako datu guztiak LETRA LARRIZ IDATZI behar dira

A - MARE – 2022

..... jn./and., NAN zk.: hau legez ordezkatur: IFZ zk: eta helbide soziala:	
---	--

2014ko ekainaren 26ko Batzordearen EB 651/2014 Erregelamenduaren arabera, zenbait dirulaguntza kategoria merkatu erkidearekin bateragarritzat jotzen dituena, Itunaren (Exentzioen Erregelamendu Orokorra Kategoriak) 107. eta 108. artikuluen aplikazioaren ondorioz eta jarraian aipatzen den Erregelamenduaren 1. eranskinaren 1. artikuluan azaltzen den "enpresa"ren definizioa kontuan izanik:

Jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen edozein entitate enpresa kontsideratuko da, bere forma juridikoa edozein izanda ere. Bereziki, enpresatzat hartuko dira, gizabanako edo familia bezala, eskuz egindako edo beste edozein jarduera gauzatzen duten entitateak; erregularki jarduera ekonomiko bat gauzatzen duten pertsonen elkarteak eta asoziazioak ere enpresatzat hartuko dira.

HAUXE ADIERAZTEN DU

I. Enpresa eskatzailearen akziodunak:

- a. EZ direla kapital sozialaren gutxienez % 25a duten beste enpresa batzuk.
 b. BAdirela kapital sozialaren gutxienez % 25a duten beste enpresa batzuk*.

Akziodunaren/bazkidearen izen soziala	IFK/IFZ	Partizipazioen %

* Kasu horretan, identifikatutako akziodunen/bazkideen azken urteko kontuak aurkeztu behar dira.

II. Enpresa eskatzaileak:

- a. EZ daukala zuzeneko edo zeharkako partizipaziorik beste enpresa batzuen kapital sozialaren gutxienez % 25ean.
 b. BAdauzkala zuzeneko edo zeharkako partizipazioak beste enpresa batzuen kapital sozialaren.

Partaidetutako enpresaren izen soziala	IFK/IFZ	Partizipazioen %

* Kasu horretan, identifikatutako enpresen azken urteko kontuak aurkeztu behar dira.

III. 651/2014 Erregelamenduko I. Eranskinaren 2. artikulua (Enpresa kategoriak definitzen dituzten efektiboak eta finantza-muqak).

Enpresa txiki-txikien, txikien eta ertainen kategoriaren (ETE/PYME) barruan izateko, enpresek honako baldintza hauek bete behar dituzte: 250 langile baino gutxiago izatea eta urteko negozio bolumena 50 milioi eurotik gora ez izatea, edo urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gora ez izatea. ETE/PYME kategorien arabera honako ezaugarriak dituen enpresa hartzen da enpresa txikitzat: 50 langile baino gutxiago izatea eta urteko negozio bolumena edo urteko balantze orokorra 10 milioi eurotik gora ez izatea.

Horrez gain, 2. Ataleko 2. paragrafoan aipatutako kasuetan izan ezik, enpresa bat ezin izango da ETEtzat jo, baldin eta haren kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 edo gehiago erakunde publiko batek edo batzuek, batera edo bakarka, zuzenean edo zeharka kontrolatzen badu(te).

Horren ondorioz, eta hurrengo IV. puntuan adierazitakoa aintzat hartuz, ordezkatzeko duen pertsona juridikoa honakotzat jotzen da (*markatu dagokion enpresa mota*):

Enpresa txikia	
Enpresa ertaina	
Enpresa handia	

IV. 651/2014 Erregelamenduko I. Eranskinaren 3. artikulua (*Efektiboan eta finantza-zenbatekoen kalkulurako aintzat hartutako enpresa motak*). ETEaren definizioan hiru enpresa mota bereizten dira, kapitalean edo boto-eskubideetan parte hartzeko edo eragin dominante bat gauzatzeko eskubideari dagokionez beste enpresa batzuekin duen harreman motaren arabera.

Eragin dominanterik ez dagoela aurreikusiko da baldin eta, 2. Atalaren 2. paragrafoan zerrendatutako inbertitzaileek zuzeneko edo zeharkako inplikaziorik ez badute dagokion enpresaren kudeaketan, akziodunak diren heinean dagozkien eskubideei kalterik egin gabe.

Ordezkatzen duen pertsona juridikoa honakotzat jotzen da (*markatu dagokion enpresa mota*):

1. atala – Enpresa autonomoa

Beste bi motetakoak (elkartuak edo lotuak) ez diren enpresa guztiak biltzen ditu.

2. atala – Enpresa elkartua

Beste enpresa batzuekin finantza-elkarteko lotura esanguratsua dauzkaten enpresek osatzen dute mota hau, baldin eta, bietako edozeinek bestea zuzenean edo zeharka benetan kontrolatzen ez badu. Autonomoak ez diren eta elkarren arteko loturarik ez duten enpresak dira enpresa elkartuak. Enpresa eskatzailea beste enpresa baten elkartua izango da baldin eta, bakarka edo beste enpresa lotu batekin edo batzuekin batera, beste enpresa baten (enpresa partaidetua) kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 edo gehiago badu.

Nolanahi ere, enpresa batek autonomoaren kalifikazioa jaso ahaliko du, enpresa elkarturik gabe, nahiz eta % 25eko gehieneko mugara iritsi edo muga hori gainditu, baldin eta honako inbertitzaile kategoria hauek biltzen badira, eta horien, batera edo banan-banan, eta dagokion enpresaren artean, enpresa lotuetarako deskribatutako loturak ageri ez badira:

- partaidetza-sozietate publikoak, arrisku kapitaleko sozietateak, arrisku-kapitaleko inbertsio-jarduera erregular bat egiten duten pertsona fisikoak edo pertsona fisikoen taldeak (inbertitzaile probidentzialak edo business angels), burtsa-kotizaziorik gabeko enpresetan funts propioak inbertitzen dituztenak, betiere inbertitzaile probidentzial horiek enpresa berean egindako inbertsioa 1.250.000 eurotik beherakoa bada;
- irabazi-asmorik gabeko unibertsitateak edo ikerketa-zentroak;
- inbertitzaile instituzionalak, eskualde-garapenerako funtsak barne;
- 10 milioi eurotik beherako urteko aurrekontu bat eta 5.000 biztanletik beherako biztanleria duten toki-agintari autonomoak.

3. atala – Enpresa lotua

Zuzenean edo zeharka (nahiz eta akordioan edo pertsona fisiko akziodunen bitartez izan) boto-eskubide gehienak kontrolatzen dituen edo enpresaren gainean eragin dominante bat gauza dezakeen talde baten zati diren enpresen egoera ekonomikoari dagokio mota hau

Elkarren artean honako harreman hauetako bat dutenak izango dira enpresa lotuak:

- enpresa batek beste enpresa baten akziodun edo bazkideen boto-eskubide gehienak dauka;
- enpresa batek beste enpresa baten administrazio-, zuzendaritza- edo kontrol-organoko kide gehienak izendatu edo atzera botatzeko eskubidea dauka;
- enpresa batek beste baten gainean eragin dominante bat gauzatzeko eskubidea dauka, harekin egindako kontratu bati edo bigarren enpresaren estatutu-klausula bati jarraikiz;
- beste enpresa baten akzioduna den edo harekin elkartuta dagoen enpresa batek bere kasa kontrolatzen ditu, bigarren enpresaren beste akziodun edo bazkide batzuekin egindako akordio bati jarraikiz, haren akziodun edo bazkideen boto-eskubide gehienak;

Beste enpresa baten edo batzuen bitartez 2. Ataleko lehen paragrafoan jasotako harremanetako edozein duten edo 2. Ataleko bigarren paragrafoan zerrendatutako inbertitzaileekin harremanak dituzten enpresak ere lotutzat joko dira. Eta enpresa lotutzat joko dira, halaber, adostasunez diharduten pertsona fisikoen talde baten edo pertsona fisiko baten bitartez harreman horietako bat duten enpresak, baldin eta enpresa horien jarduera osoa edo haren zati bat erreferentziazko merkatuan edo aldameneko merkatuetan garatzen bada. Dagokion merkatuaren ondo-ondoan (aurrean edo atzean) dagoen produktu edo zerbitzu baten merkatua joko da "aldameneko merkatutzat".

- V. 651/2014 Erregelamenduaren 6. artikulua, ondorio sustatzaileaz edo pizgarriaz diharduena eta aipatutako Erregelamenduaren 2. (23) artikuluan adierazten den "lanen hasiera" definizioarekin bat etorritz, dirulaguntza eskaeraren xedea den jardueran edo proiektuan ordezkatzeko duen pertsona juridikoa EZ da lanean hasi, EEEri dirulaguntza eskaera aurkeztu aurretik.

Datu pertsonalak babesteari buruzko informazioa:

Tratamenduaren arduraduna: ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE). **Helburua:** laguntza-/dirulaguntza-eskaera kudeatzea eta Eusko Jaurlaritzaren politiken monitorizazioa eta estatistika. **Eskubideak:** datuetan sartzea eta datuak zuzendu eta ezabatzea, **informazio gehigarria** azaltzen denez, datuak babesteari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsulta dezakezu Laguntza Programaren oinarrietan.

Lekua eta eguna:

Izena eta abizenak:

Sinadura *(Eskatzailearena, edo kide guztiena, modu indibidualean,
proposamena lankidetzan baldin bada)*